

UBM, 88

[BAZKAL AURREA DIO]

Bazkal aurrea diot: Jendea
espaloiak betean, argi,
kale argiz, janari
-mokadu gozoak hemen han
ahoratuz,

kale argiz errondan,
koloretsu ta bizi,

kalez

-kale jendea,
berritsu ta mazal.

Hango eta hemengo jatetxe aurretan,
patxadan,

atsegin airez,

mahaitxo politetan

lasai jarrita,

guleriatan

jendea.

Ta ibilian eta
ta alegere,
gose gili eraginkorrez

jantzi dotorez

jendea

barraz barra.

Jendea barra barra

kale argiz,
bazkal aurreko Madrile egunero zoragarriz.